



Hondarribian, 2008ko urriaren 31ean

Jaun/anderea:

Jakingo duzun bezala, Hondarribiko Tokiko Agenda 21 Herritarren Foroak iraunkortasunerako 1. Ekintza Planarekin prestaketa lanetan murgilduta dago. Hala, 2008ko irailaren 16tik 18ra, Foroaren gaikako mahaietan parte hartu zuten herritarrek nahiz entitateek Ekintza Planaren zirriborroari ekarpenak egin zizkioten eta hori da hain zuzen ere gutun honekin batera atxikita bidaltzen dizugun dokumentua.

Tokiko Agenda 21en ezarpen prozesuarekin jarraituz, Herritarren Foroak Plana osatzen duten ekintzen arteko lehentasun maila bat finkatzea interesgarritzat jotzen da. Izan ere, Plana onartu ostean, datozen urteetan aurrera eraman nahi diren ekintzak gauzatzen lagunduko baitio Udalari egindako lehenespenak.

Hori dela eta, gutun honen bidez Herritarren Foroaren gaikako mahaien bigarren lan saiorako deialdia egiten dizugu, jarraian zehaztuta dagoen moduan:

- Ekonomia eta Gizarte Iraunkortasunaren mahaia: bilera honetan Ekintza Planaren zirriborroko 1. 2. eta 3. lerro estrategikoak aztertuko dituzte. Bilera **azaroaren 4an, asteartea, Udaleko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan** izango da.
- Hiri Planeamendua eta Mugikortasuneko mahaia: mahai honetako kideek 3., 4. eta 5. lerro estrategikoen inguruko ekintzen lehenespena egingo dute. Bilera **azaroaren 5ean, asteazkena, Udaleko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan** izango da.
- Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurumen Bektoreen mahaia: 3., 6. eta 7. lerro strategiakoak eztabaidatuko dira mahai honetan 2. lan saioan. Bilera **azaroaren 6an, osteguna, Udaleko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan** izango da.

Ikusten duzuen moduan, aipatu hiru mahaietan Ekintza Planaren zirriborroko 3. lerro estrategikoan jasotako ekintzen lehenespena egingo da, baina mahai batetan baino gehiagotan parte hartzea erabakitzen dutenek 3. lerro estrategikoari buruzko lehentasunak soilik bileretako batean ezarri ahal izango dituzte.

Bileraren gai zerrenda honakoa izango da:

1. Mahaietako lehen bileren inguruko zalantzak argitzea
2. Ekintzen arteko lehentasunak finkatzea
3. Norberak lekarkeena

Herritarren Foroko gaikako lan mahaietan parte hartuko duzulakoan, jaso agur bat,

Aitor Kerejeta Cid
Hondarribiko Alkatea

Ion Elizalde Caballero
Ingurumena eta Agenda 21 zinegotzia



En Hondarribia, a 31 de octubre de 2008

Estimado sr./sra.:

El Foro Ciudadano de la Agenda Local 21 de Hondarribia se encuentra inmerso en la redacción del futuro I. Plan de Acción por la sostenibilidad de Hondarribia. Concretamente, del 16 al 18 de septiembre, las mesas temáticas que conforman el Foro debatieron y completaron el borrador del Plan de Acción diseñado durante el segundo trimestre del año. El trabajo realizado durante las reuniones de las mesas del Foro se refleja en la nueva versión del borrador del Plan que se adjunta a la presente.

Continuando con el proceso de implantación de la Agenda Local 21, se considera de interés que las asociaciones, entidades y ciudadanía a título particular que participan en el Foro realicen una priorización de las acciones recogidas en el borrador del Plan de Acción, de cara a facilitar la ejecución de dichas acciones en los años de vigencia del citado documento.

Por ello, mediante la presente le convoco la segunda sesión de trabajo de las mesas temáticas del Foro:

- Mesa de Sostenibilidad Económica y Social: a esta mesa le corresponderá priorizar las acciones de las líneas estratégicas nº 1, 2 y 3. La reunión se celebrará, el **4 de noviembre, martes, a las 19:00 horas, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.**
- Mesa de Planeamiento Urbano y Movilidad: se priorizarán las acciones recogidas en las líneas estratégicas tercera, cuarta y quinta. La reunión tendrá lugar el **5 de noviembre, miércoles, a las 19:00 horas en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.**
- Mesa de Biodiversidad, Paisaje y Vectores Ambientales: los/las participantes priorizarán las acciones relativas a las líneas 3., 6. y 7. del Plan de Acción. La reunión se realizará el **6 de noviembre, jueves, a las 19:00 horas en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.**

Dado que las acciones de la tercera línea estratégica, por su carácter transversal, se analizarán en las tres mesas temáticas, las personas que participen en más de una reunión no podrán realizar la priorización de las acciones de la línea estratégica nº 3 en más de una ocasión.

Este será el orden del día de las reuniones:

1. Aclaración de contenidos o aportaciones realizadas en reuniones anteriores
2. Priorización de las acciones del Plan
3. Ruegos y preguntas

Esperando poder contar con su presencia en las mesas de trabajo del Foro Ciudadano, le saluda atentamente,

Aitor Kerejeta Cid
Alcalde de Hondarribia

Ion Elizalde Caballero
Concejal Delegado de Medio Ambiente y Agenda 21